

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

1. Zein da zuen bezeroa?

- 1. produktua (energia elektrikoa soinu-uhinen bidez ekoiztea): enpresa industrialei eskainiko diegu. Batez ere, enpresa hauek energia elektrikoa ekoizteko modua aldatzeko prest egon behar dira, hau da, ingurumena zaintzeko prest eta energia elektrikoaren ekoizpena inbertsio bat bezala hartzeko prest.
- 2. produktua (tutuerietan jarriko dugun mekanismoa): lehenik eta behin enpresa handiei eskainiko diegu eta geroago, esperientzia gehiago lortzen dugunean, etxe blokeetan bizi diren bizilagunei. Produktu honekin enpresetan eta etxe blokeetan dauden tutuerietan jarriko dugun turbinaren bitartez, energia elektrikoa erraz ekoiztuko da. Horren ondorioz, sortutako energia hori aprobetxatzeko aukera izango dute eta beraz, energia honen gastuak murriztuko dira.
- 3. produktua (autoetan jarriko dugun mekanismoa): autoak ekoizten dituzten enpresei eskainiko diegu eta mekanismo honen bidez auto elektrikoen salmenta handituko da, asmatu dugun mekanismoaren bitartez autoak autokargatu egingo direlako, eta beraz, autoa etengabe kargatzearekiko menpekotasuna gutxituko da.
- Ondorioa:
 - Gure enpresa merkatu masiboan oinarrituko da, bezero guztiek antzerako beharrak dituztelako (energia elektrikoa modu eraginkorragoan ekoiztu) eta gainera balorezko proposamena, banaketa kanalak eta bezeroarekiko harremanak antzerakoak direlako. Hala ere, 3 produktu mota ekoiztuko ditugunez eta bakoitzak bere ezaugarriak dituenaz, merkatu-nitxoan edota segmentutako-merkatuan oinarrituko garela ere esan daiteke.
 - Gure bezero garrantzitsuenak enpresariak izango dira.
 - Enpresa muntatzerakoan, ezingo dugu bezero asko edukitzeko ahalmena izan, baina denbora pasa ahala, bezero kopurua handitzeko gaitasuna izango dugu.

2 . Bezeroaren ezaugarriak:

- Energia erabiltzeko behar handia duten gizabanako eta enpresari edo langileak, ingurumenari lagundu nahi diotenak.
- Gastuak murrizteko inbertsioak egiteko prest daudenak, ingurumenaren edo beraien bizi kalitatearen ongizatea bermatzeko.